

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna atzeratu nahi dute

BILBAO. Urtero bezala, apirilaren 2an Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko da aurten ere mundu osoan. Edizio honetan, Hans Christian Andersen jaiotzaren urteurrena aprobetxatuz egun horretan egingo dira ospakizun nagusiak. Baina Ostiral Santu eguna denez, Espainako Haur Liburuaren Erakundeak (OEPLIk) Estatuko beste Haur Literaturako Elkartekin batera deialdia luzatu die liburutegi eta irakaskuntza zentroei, Haur Liburuaren ospakizunerako ekintzak atzeratzeko, alegia, hauek apirilaren 12an egiteko.

Atxikipena adierazi dutenek, OEPLIk, IBBYren (International Board on Books for Young People-en) Espainiako delegazioak prestatutako kartela eta mezua jasoko dute Estatuko lau hizkuntza ofizialetara itzulita, hau da, gaztelaraz, euskaraz, katalanaz eta galizieraz. Euskal Herrian, Galtzagorri elkarte arduratu da batez ere egun honetarako hainbat ekitaldi antolatzeaz. Horietara gonbidatu ditu ia 30 liburutegi, ikastetxe eta beste eskola zentru asko. Erakusketak, liburu gidak, hitzaldiak, ipuin kontaketak... era askotakoak izango dira egun hau ospatzeko antolatu dituzten ekintzak. Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren ospakizunetara atxiki direnek, Noemi Villamuzak margolariak ilustratutako kartela eta Eliacer Cansinok idatzitako mezua jasoko dituzte aurten. Euskarazko mezua Nagore Tolosa Ustoak itzuli du. Zain duzu liburu bat; bila ezazu! testuarekin hasten den mezua osorik irakurri daiteke Galtzagorri elkarteak Interneten duen webgunean.

Aldaketa onetsia Apirilaren 2an izan da beti Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna, baina aurten Aste Santua denez, apirilaren 12an denek batera ekimenak antolatzeko deia zabaldu zuen Galtzagorri duela aste batzuk. Erantzuna oparoa eta anitza izan da, antza. Apirilaren 12an eta ondoko eta aurreko egunetan Haur Liburua protagonista izango duten hainbat ekimen antolatu baitira Euskal Herriko 29 herrietako liburutegi zein ikastetxeetan. IBBYk aurten plazaratu duen kartelaren atzealdean euren izenak agertuko dira.